ANOETAKO UDALA

KIROLEKO IKASTAROEN ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA. BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE CURSOS DEPORTIVOS. PLIEGO DE LAS CLÁUSULAS TÉCNICAS

KIROL IKASTAROAK	CURSOS DEPORTIVOS
1.- KONTRATUAREN XEDEA	1.- OBJETO DEL CONTRATO
Kontratu honen xedea Anoetako Udaleko Kirol Sailak antolatuko dituen kirol ikastaroen zerbitzua ematea da.	El objeto de este contrato es la prestación del servicio de cursos deportivos, culturales y talleres de empoderamiento para las mujeres, organizados por el Área de Deportes, Cultura e Igualdad del Ayuntamiento de Anoeta.
Kontratuaren iraunaldia 2026-2027 ikasturtekoa izango da, 2026ko urriaren 1etik 2027ko ekainaren 30a arte.	La duración del contrato será del 1 de octubre del 2026 al 30 de junio del 2027.
Kontratuak hiru luzapen eduki ahalko ditu; luzapen hauek 2027-2028, 2028-2029 eta 2029-2030 ikasturteekin bat etorriko dira, urriaren 1etik ekainaren 30era, biak barne.	El contrato podrá tener tres prórrogas que se corresponderán con los cursos escolares 2027-2028, 2028-2029 y 2029-2030, del 1 de octubre al 30 de junio, ambos inclusive.
2.- FUNTSA ETA HELBURUAK:	2.- FUNDAMENTO Y OBJETIVOS DEL SERVICIO:
Anoetako Udalak herritartasun aktiboa eta parte-hartzailea sustatzea du helburu, kirol sustapenaren eta jarduera fisikoaren bidez. Horretarako, herritarren beharretara egokitutako kirol ikastaroak eskainiko dira, aisialdi osasungarri eta hezitzailea sustatuz eta bizi-ohitura aktiboak bultzatuz.	El Ayuntamiento de Anoeta tiene como objetivo fomentar una ciudadanía activa y participativa mediante la promoción del deporte y la actividad física. Para ello, se ofrecerán cursos deportivos adaptados a las necesidades de la ciudadanía, promoviendo un ocio saludable y educativo, así como hábitos de vida activos.
Ikastaroek, jarduera fisikoa sustatzeaz gain, herritarren arteko harremanak, parte-hartzea eta kohesio soziala indartzea izango dute xede, euskaraz garatutako espazio inklusibo eta komunitarioak sortuz.	Además de fomentar la actividad física, los cursos tendrán como finalidad fortalecer las relaciones entre la ciudadanía, la participación y la cohesión social, creando espacios inclusivos y comunitarios desarrollados en euskera.
Urriaren 1etik ekainaren 30era izango dira, astero, garai hauetan izan ezik: Inauteriak, Pazko Astea, herriko festak (Korpus) eta Eguberriak.	Se realizarán semanalmente del 1 de octubre al 30 de junio, excepto en Carnavales, Semana de Pascua, fiestas patronales (Corpus) y Navidades.

ANOETAKO UDALA

HELDUENTZAT:

Yoga: asteazkenetan 09:30-11:00, 11:00-12:30, 17:00-18:30 eta 18:30-20:00.
Cycling: astearte eta ostegunetan 17:10-18:10.
Biodantza: astearteetan 18:00-19:30.
Indartu zaitez: astelehenetan 10:15-11:15.
Zunba: astelehen eta asteazkenetan 19:30-20:30.
Cross training: astearte eta ostegunetan 18:15-19:15 eta 19:30-20:30.
Tonifikazioa: astelehen eta asteazkenetan 17:10-18:10 eta 18:15-19:15 eta astearte eta ostegunetan 09:10-10:10.
Bailarte: ostiraletan 8:00-8:45.

HAURRENTZAT:

Gimnasia erritmikoa: astelehenetan 18:30-19:30.
Psikomotrizitatea: ostegunetan 17:00-18:00.

Ordutegi hauek estimatiboak dira. Talde gehiago edo gutxiago sor litezke, edo bestelako ikastaro batzuk eskaini, betiere kontuan hartuz urtean gehienez 917 ordu izango direla.

Anoetako Udalak egutegi-ordutegi hau egokitu lezake egoera hauetan:
-Interes orokorrak hala eskatzen badu.
-Programazioaren premien edo aldaketen ondorioz.
-Ospakizunen edo aparteko ekintzen premien ondorioz.
-Anoetako Udalaren irizpideen arabera behar bezala justifikatutako beste edozein arrazoi.

Aipatutako kirol ikastaro guztiak kiroldegian egingo dira, psikomotrizitatea, yoga eta biodantza izan ezik. Psikomotrizitatea ikastolan emango da eta yoga eta biodantza gela balioanitzean emango dira. Dena dela, Anoetako Udalak

PARA PERSONAS ADULTAS:

Yoga: miércoles de 09:30 a 11:00, de 11:00 a 12:30, de 17:00 a 18:30 y de 18:30 a 20:00.
Cycling: martes y jueves de 17:10 a 18:10.
Biodanza: martes 18:00-19:30.
Ponte en forma: lunes de 10:15 a 11:15.
Zumba: lunes y miércoles de 19:30 a 20:30.
Crosstraining: martes y jueves de 18:15 a 19:15 y de 19:30 a 20:30.
Tonificación: lunes y miércoles de 17:10 a 18:10 y de 18:15 a 19:15 y martes y jueves de 09:10 a 10:10.
Bailarte: viernes 8:00-8:45.

PARA NIÑAS Y NIÑOS:

Gimnasia rítmica: lunes de 18:30 a 19:30.
Psicomotricidad: jueves 17:00-18:00.

Estos horarios son estimativos. Se pueden formar más o menos grupos, y se podrán ofrecer otras propuestas de cursos, siempre teniendo en cuenta un máximo anual de 917 horas.

El Ayuntamiento de Anoeta podrá modificar este calendario y horario en los siguientes supuestos:
-Si el interés general así lo demanda.
-Por necesidades y/o variación de la programación.
-Por necesidades derivadas de celebraciones u otros actos de carácter extraordinario.
-Por cualquier otra causa debidamente justificada, a criterio del Ayuntamiento de Anoeta.

Todos los cursos deportivos mencionados se impartirán en el polideportivo, excepto los de psicomotricidad, yoga y biodanza. La psicomotricidad se desarrollará en la ikastola, mientras que el yoga y la biodanza se impartirán en la sala polivalente. No obstante, el Ayuntamiento de Anoeta podrá solicitar que cualquiera de estos

zerbitzu hauek beste edozein udal instalazioetan emateko ere eskatu lezake.

servicios se preste en cualquier otra instalación municipal.

3.- ZEHARLERROAK

a. Parekidetasuna eta inklusioa:

Indarrean dagoen araudi guztia errespetatuko da, eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea**,** bai eta hura aldatzen duen otsailaren 16ko 3/2012 Legea ere.

Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatuko dira jarduera guztietan. Ez da onartuko sexuagatik, genero-identitateagatik edo adierazpenagatik, sexu orientazioagatik, adinagatik, jatorriagatik, hizkuntzagatik, desgaitasunagatik, erlijioagatik edo beste edozein egoera pertsonal edo sozialengatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragin dezakeen jokabiderik.

Ikastaro eta tailerren diseinuan zein garapenean emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua sustatuko da, eta arreta berezia jarriko da tradizionalki gutxi ordezkatuta egon diren kolektiboen parte-hartzea bultzatzeko. Era berean, esleipendunak lankidetza aktiboa izango du Udalak berdintasuna, emakumeen ahalduntzea eta jarduera seguru, inklusibo eta berdinzaleak sustatzeko antolatzen dituen plan, programa edo kanpainetan, betiere kontratuaren xedearekin lotura duten neurrian.

Hizkuntzaren eta komunikazioaren erabilera inklusiboa bermatuko da. Ikastaroetan erabiliko diren ahozko zein idatzizko komunikazioetan, kartel, iragarki, material didaktiko, musika eta gainerako euskarrietan hizkera ez-sexista erabiliko da, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua, anitza eta estereotiporik gabea islatzen duten irudiak eta edukiak erabiliko dira. Ez dira

2.- LINEAS TRANSVERSALES

a. Igualdad e inclusión

Se respetará toda la normativa vigente, y en particular la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y la Ley 3/2012, de 16 de febrero, que la modifica.

Se garantizarán los principios de igualdad y no discriminación en todas las actuaciones. No se admitirán conductas que puedan suponer discriminación directa o indirecta por razón de sexo, identidad o expresión de género, orientación sexual, edad, origen, idioma, discapacidad, religión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.

Se promoverá una participación equilibrada de mujeres y hombres en el diseño y desarrollo de cursos y talleres, con especial atención a favorecer la participación de colectivos tradicionalmente poco representados. Asimismo, la empresa adjudicataria colaborará activamente en los planes, programas o campañas que el Ayuntamiento organice para promover la igualdad, el empoderamiento de las mujeres y actividades seguras, inclusivas e igualitarias, siempre que guarden relación con el objeto del contrato.

Se garantizará un uso inclusivo del lenguaje y la comunicación. Las comunicaciones orales y escritas, carteles, anuncios, materiales didácticos, música y demás soportes que se utilicen en los cursos deberán emplear un lenguaje no sexista, con imágenes y contenidos que reflejen una presencia equilibrada, diversa y sin estereotipos de mujeres y hombres.

onartuko eduki sexistak, LGTBIfoboak, arrazistak, xenofoboak edo bazterketa sustatzen duten bestelako mezu, irudi edo edukiak.

Jarduera guztietan errespetuan, berdintasunean eta elkarrekiko zaintzan oinarritutako giro segurua sustatuko da. Ez da onartuko jazarpen, indarkeria, gorroto edo bazterketa jokabiderik, eta halako egoeraren bat antzemanez gero, esleipendunak berehala jardungo du egoera geldiarazteko eta Udalari jakinaraziko dio, indarrean dauden protokoloei jarraituz.

En todas las actividades se promoverá un ambiente seguro y basado en el respeto, la igualdad y el cuidado mutuo. No se admitirán conductas de acoso, violencia, odio o marginación, y en caso de detectarse alguna de estas situaciones, la empresa adjudicataria actuará inmediatamente para paralizar la situación y lo comunicará al Ayuntamiento siguiendo los protocolos vigentes.

Haurrei eta nerabeei zuzendutako jardueretan, esleipendunak tratu onaren kultura sustatuko du eta jarduerak ingurune seguru, babesle eta ongizatea sustatzen duten espazioetan garatuko dira, indarreko araudia eta udal-protokoloak betez.

En las actividades dirigidas a la infancia y la adolescencia, se fomentará una cultura de buen trato y las actividades se desarrollarán en entornos seguros, protectores y espacios que fomenten el bienestar, de acuerdo con la normativa vigente y los protocolos municipales.

Jarraipen eta ebaluazio dokumentazioan, hala nola txosten, memoria eta ebaluazioetan, parte-hartzearen datuak sexuaren arabera bereizita jasoko dira. Ahal den neurrian, adin-tarteen edo Udalak eskatutako bestelako adierazleen araberako informazioa ere jasoko da, berdintasunaren eta inklusioaren ikuspegitik azterketa egitea errazteko.

La documentación de seguimiento y evaluación, así como los informes, memorias y evaluaciones, recogerán los datos de participación desagregados por sexo. En la medida de lo posible, también se recogerá información en función de las franjas de edad u otros indicadores solicitados por el Ayuntamiento para facilitar el análisis desde una perspectiva de igualdad e inclusión.

b. Euskara:

1. Zerbitzu hizkuntza: kontratu honen xede diren prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta kontratuaren zerbitzu hizkuntza nagusiki euskara izango da, eta kontratatutako enpresaren betebeharra izango da hori bermatzeko beharrezko neurriak hartzea. Betebehar hori gauzatzerakoan, Anoetako Udalaren lankidetzaz eta aholkularitzaz baliatu ahal izango da enpresa.

b. Euskera:

1. Lengua de servicio: Por las características propias de la prestación objeto del presente contrato, la lengua de servicio del contrato será mayoritariamente el euskera, siendo obligación de la empresa contratada adoptar las medidas necesarias para garantizarlo. En el ejercicio de esta obligación, la empresa podrá beneficiarse de la colaboración y asesoramiento del Ayuntamiento de Anoeta.

ANOETAKO UDALA

Kontratatutako ikastaro eta tailerretan euskarazko harremanak ziurtatuko dira, Udaleko planean herritarrekiko harremanetarako finkatutako irizpideen arabera, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

En los servicios derivados de esta contratación se asegurarán las relaciones en euskera, de acuerdo con los criterios establecidos en el plan municipal para las relaciones con la ciudadanía, respetando en todo caso los derechos lingüísticos de la ciudadanía

2. Langileen hizkuntza gaitasuna: administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza-gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, kontratatutako langileek Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila egiaztatu beharko dute, gutxienez, ahozko eta idatzizko gaitasunean.

2. Competencia lingüística del personal: en la medida en que se relacionen con la Administración y con terceros, el personal de la empresa contratada deberá garantizar unas condiciones de competencia lingüística equivalentes a las que debería cumplir la propia Administración, por lo que, dada la naturaleza de los servicios a prestar, el personal contratado deberá acreditar, al menos, el nivel de competencia B2 del Marco Europeo de Referencia en competencia oral y escrita.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza-gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza-gaitasuna egiaztatu beharko dute.

La empresa deberá acreditar con anterioridad a la adjudicación del contrato que las personas que vayan a prestar el servicio cuentan con la competencia lingüística requerida. Asimismo, en el caso de que se incorporen nuevas personas que presten el servicio con posterioridad a la contratación de la empresa, éstas deberán acreditar la competencia lingüística requerida.

Adierazitako maila agirien bidez egiaztatu ezin denean, administrazioak ezagutza maila baieztatzeko proba egitea erabaki dezake (proba horretan lortutako mailak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Cuando no sea posible acreditar documentalmente el nivel indicado, la Administración podrá acordar la realización de la prueba de acreditación del nivel de conocimientos (el nivel alcanzado en dicha prueba no tendrá valor alguno fuera de esta adjudicación).

Subrogazio kasuetan eta behin esleipena eginda, enpresa esleipendunak udalari aurkeztuko dio zerbitzua emango duten langile subrogatuen euskara gaitasunaren inguruko informazioa, esleipen-kontratua sinatu eta hilabeteko epean gehienez ere. Bertan zehaztuko ditu subrogatuta dauden langileen izen-abizenak eta bakoitzak egiaztatua duen euskara maila.

En los casos de subrogación y una vez realizada la adjudicación, la empresa adjudicataria presentará al Ayuntamiento la información relativa a la competencia en euskera del personal subrogado que vaya a prestar el servicio, en el plazo máximo de un mes desde la firma del contrato de adjudicación. En ella especificará el nombre y apellidos de las y los trabajadores subrogadas/os y el nivel de euskera acreditado por cada una/o de ellos.

Zerbitzu hau emateko eskatutako euskara gaitasuna ez balute langileek, enpresa esleipendunak langile horiek euskalduntzeko plangintza prestatu eta aurkeztu beharko dio Udalari esleipena egin denetik bi hilabeteko epean gehienez ere. Enpresa esleipendunak euskalduntzeko plangintza prestatzeko argibideak behar izanez gero, Udalarekin jarriko da harremanetan. Enpresa esleipendunak aurkeztutako plangintza martxan jarri aurretik, ezinbestekoa izango da Udalaren aldeko txostena. Plangintza horren jarraipena ere egingo du Udalak. Enpresa esleipendunak hartuko du bere gain plangintza horren kostua.

En el caso de que las y los trabajadores no tuvieran la capacitación requerida para la prestación de este servicio, la empresa adjudicataria deberá elaborar y presentar al Ayuntamiento, en el plazo máximo de dos meses desde la adjudicación, el plan de euskaldunización de dicho personal. En caso de que la empresa adjudicataria necesite aclaraciones para la elaboración del planeamiento de euskaldunización, se pondrá en contacto con el Ayuntamiento. Con carácter previo a la puesta en marcha del planeamiento presentado por la empresa adjudicataria, será preceptivo el informe favorable del Ayuntamiento. El Ayuntamiento también hará un seguimiento de esta planificación. La empresa adjudicataria asumirá el coste de dicha planificación.

3. Hizkuntza paisaia: errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.
Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta. Horretarako, Udal Euskara Sailaren lankidetzaz baliatu ahal izango da enpresa.
Era berean, euskarazko testuen kalitatea ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Euskara Sailera bidaliko dira zuzentzera.

3. Paisaje lingüístico: los rótulos, notas, señales y demás comunicaciones generales se realizarán mediante pictograma y estarán acompañados de un mensaje explicativo en euskera. Cuando no sea posible hacerlo por pictograma, los mensajes se emitirán en euskera cuando sean conocidos o comprensibles.
Cuando los dos casos anteriores sean imposibles, se realizarán en bilingüe dando prioridad al euskera, previo acuerdo con la administración. Para ello, la empresa podrá contar con la colaboración del departamento municipal de Euskera.
Asimismo, con el fin de asegurar la calidad de los textos en euskera, los textos de gran difusión y/o de uso recurrente se remitirán al Departamento de Euskera para su corrección.

4. Musika: Musika erabiltzen den ikastaroetan, erabilitako musikaren gutxienez %30 euskarazkoa izango da, euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko helburuarekin.

4. Música: En los cursos en los que se utilice música, al menos el 30 % de la música empleada será en euskera, con el objetivo de fomentar su uso y presencia.

5. Hizkuntza erabilera herritar eta erabiltzaileekin: herritar eta zerbitzu

5. Uso lingüístico con los ciudadanos y usuarios: Para atender y responder a los ciudadanos y usuarios

erabiltzaileei arreta eskaintzeko, udalak bete behar dituen hizkuntza baldintza berak bete beharko dira. Eta, horregatik, lehen hitza euskaraz egingo zaie, eta hortik aurrera, beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean hitz egingo zaie.

de los servicios, deberán cumplirse las mismas condiciones lingüísticas que debe cumplir el ayuntamiento. Y, por ello, la primera palabra se les hará en euskera, y a partir de ahí, se les hablará en la lengua oficial que ellos elijan.

Jarduera taldeetan, ahozko jarduna aurreko atalean zehaztutako irizpideen araberakoa izango da.

En los grupos de actividades, la práctica oral dependerá de los criterios definidos en el apartado anterior.

Idatzizko jakinarazpenak eta komunikazioak (inprimakiak, abisuak, ordutegiak, ordainagiriak, megafonia, ikastaroko partaideen ebaluazioak...) euskaraz egingo zaizkie herritarrei. Ikastaroen publizitate kartelak eta esku-orriak euskaraz ezezik ele biz ere egingo dira, udaletxeko iragarki-taulan eta web orrian jartzeko.

Las notificaciones y comunicaciones por escrito (impresos, avisos, horarios, recibos, megafonía, evaluaciones de los participantes en el curso...) se realizarán a la ciudadanía en euskera.
Los carteles y hojas informativas para publicitar los cursos se harán tanto en euskera como en bilingüe, para ponerlos en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web.

Erabiltzaileak hala eskatuz gero, informazioa ele biz jasotzea bermatuko da, idatzizkoa baldin bada, eta beti euskaraz idatzitakoa nabarmenduz

Si la persona usuaria lo solicita, se garantizará que reciba la información en bilingüe, si es por escrito, y siempre destacando el texto en euskera.

6. Administrazioarekiko erabilera: enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; era berean, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) administrazioaren lan-hizkuntzaren araberakoak izango dira. Anoetako Udalak udaleko sail guztiak izendatu ditu euskarazko atal eta lehenetsi egiten du euskararen erabilera barne nahiz kanpo harremanetan.

6. Uso administrativo: la empresa adjudicataria se regirá por la normativa lingüística de la Administración en todas las actividades objeto del contrato, así como por las relaciones orales y escritas (contratos, facturas, informes, reuniones, consultas...) que la empresa mantenga con la Administración en función de su lengua de trabajo. El Ayuntamiento de Anoeta ha designado todos los departamentos municipales como secciones en euskera y prioriza el uso del euskera tanto en las relaciones internas como externas

c. Ingurumena:
Ingurumen irizpideak hartuko dira kontuan, ahal den heinean: aurrezte eta energia eraginkortasuna, hondakin frakzio

c. Medio ambiente:
Se tendrán en cuenta criterios medioambientales, en la medida que sea posible: ahorro de energía y

ANOETAKO UDALA

ezberdinen sailkatze egokia (ahalik eta hondakin gutxien sortzen saiatuz), tokiko bioaniztasunari kalterik ez sortzea (material ekologiko eta jasangarriak), mugikortasun iraunkorra sustatzea, jendaurreko ekitaldirik antolatuz gero tokiko elikagaiak sustatzea etab.

4.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK.

1. Agiri honetan eta Baldintza Administratibo zehatzen Agirian ezarritako baldintza tekniko, ekonomiko eta administratiboen arabera beteko da kontratua. Halaber, esleipen honen xede den jarduera burutzeko Udalak emandako aginduak beteko dira.

2. Adin-tarte eta kolektibo ezberdinei egokitutako ikastaro eta tailerren eskaintza egin nahi da, kontratuaren xedean zehaztuta dagoena. Horrez gain, erakargarriak izan daitezkeen bestelako ezagutzak eta diziplinak lantzen dituzten ikastaro eta tailerrak ere eskaini ahalko dira.

3. Zerbitzuko jardueren programa kontratuaren ardura daukan udal teknikariarekin batera landuko du esleipendunak, dagoen eskaria betetze aldera.

4. Tailerrak goizez edota arratsaldez eskaini ahalko dira eta urritik ekainera bitartean gauzatuko dira Anoetako Udalak zehaztutako egutegian. Hasiera batean, kontratuaren xedean aipatu ordutegiak izango dira, baina aldaketak egon litezke.

Esleipenduna arduratuko da zerbitzua lan-egutegiaren eta ordutegiaren arabera emateaz, eta ez betetzeak dakartzan erantzukizunak bere gain hartuko du.

5. Esleipendunak eskolak emateko eta instalazioak erabiltzeko behar den diziplina mantenduko du, instalazioen arauak betearaziko ditu eta erabilitako materiala atera eta jaso egingo du.

eficiencia energética, reducción de residuos y separación de las diferentes fracciones, no perjudicar la biodiversidad local y promover el uso de materiales ecológicos realizados con procesos sostenibles, fomentar la movilidad reducida, en caso de hacer alguna presentación pública consumir productos de producción local, etc.

4.- OBLIGACIONES DEL CONTRATISTA.

1. El contrato se regirá por las condiciones técnicas, económicas y administrativas establecidas en el presente Pliego y en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares. Asimismo, para la realización de la actividad objeto de esta adjudicación se observarán las instrucciones del Ayuntamiento.

2. Se pretende realizar una oferta de cursos y talleres adaptados a las diferentes franjas de edad y colectivos. Esta oferta aparece reflejada en el Objeto del contrato.
Además, se podrán ofertar cursos y talleres en los que se trabajen otros conocimientos y disciplinas que puedan resultar atractivos.

3. La empresa adjudicataria estudiará y gestionará junto con el personal técnico municipal encargado del contrato el programa de actividades para las personas usuarias del servicio, en aras de la satisfacción de la demanda existente.

4. Los cursos y talleres se podrán ofertar en horario de mañana y/o tarde y se desarrollarán de octubre a junio en el calendario que determine el Ayuntamiento de Anoeta. En principio los horarios serán los establecidos en el Objeto del Contrato, pero pueden estar sujetos a cambios.

La empresa adjudicataria será responsable del cumplimiento de la prestación del servicio conforme al calendario y horario laboral, asumiendo las responsabilidades que se deriven de su incumplimiento.

5. La empresa adjudicataria mantendrá la disciplina debida a la hora de dar clases y usar las instalaciones, hará cumplir la normativa de las instalaciones, y se encargará de sacar y recoger el material utilizado.

Honen harira, udal instalazioetan dagoen materiala erabili ahalko du esleipendunak, erabilera egokia egiteaz arduratuz. Erabilera okerra egingo balitz, esleipendunaren kontura litzateke berritzea.

La empresa adjudicataria podrá utilizar el material existente en las instalaciones municipales, con la condición de que haga buen uso de éste. En caso contrario, la reposición correría por cuenta de la empresa adjudicataria.

6. Esleipendunak ikastaroetan izena emandako ikasleen jarraipena eta asistentzia kontrola egin beharko du. Eta abenduaren 5eko Lege Organikoa 3/2018 bete beharko du, datu pertsonalak babesteko legea, alegia.

6. La adjudicataria deberá realizar el seguimiento y control asistencial de las personas inscritas en los cursos. Y deberá respetar en su integridad la Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre, de protección de datos personales.

7. Esleipendunak gorabeheren eguneko erregistroa eramango du, eta kontratuaren ardura daukan udal teknikariari jakinaraziko dio, zerbait gertatuz gero.

7. La adjudicataria llevará un registro diario de incidencias, y dará cuenta de ello al personal técnico municipal encargado del contrato.

Esleipendunak jarduerari buruzko hiruhileko txostenak aurkeztu beharko dizkio kontratuaren ardura daukan udal teknikariari, honako hauek adierazita: erabiltzaileak, estatistika datuak (genero ikuspegia txertatuta), gorabeherak, erreklamazioak, kexak etab.

La empresa adjudicataria deberá presentar al personal técnico municipal encargado del contrato informes trimestrales sobre la actividad: datos estadísticos con enfoque de género, personas usuarias, incidencias, reclamaciones, quejas, etc.

Ikasturtea amaitu ondoren, ikasturteko memoria aurkeztu beharko du esleipendunak. Bertan azalduko dira antolatutako ikastaroen datuak (kopuruak, generoa etab.) eta balorazio orokorra. Erabiltzaileen gogobetetze-mailari buruzko inkestak ere aurkeztu beharko dizkio udalari.

Al finalizar el curso escolar, la empresa adjudicataria tendrá que presentar una memoria de los cursos realizados, aportando datos sobre número de participantes, género, etc. y una valoración general.
Asimismo, presentará encuestas del grado de satisfacción de las personas usuarias con el servicio.

8. Esleipendunak bere gain hartzen du zerbitzua emateko beharrezko giza eta material errekurtsoak ematea. Irakasleek gutxieneko titulazioa izango dute, jarduera ezberdinak irakasteko.

8. La empresa adjudicataria asume la prestación de los recursos humanos y materiales necesarios para la prestación del servicio. El personal docente tendrá que tener una formación mínima para impartir los diferentes cursos.

Esleipenduna ahaleginduko da kontratua gauzatzeko epean, eta baita luzapenetan ere, zerbitzua emateari atxikitzen zaizkion langileen egonkortasuna bermatzen.

La empresa adjudicataria procurará garantizar la estabilidad del personal que se adscriba a la prestación del servicio, tanto durante el plazo de ejecución del contrato como en sus prórrogas.

Esleipendunak une oro mantendu beharko ditu ezarritako egutegi eta orduekin zerbitzua emateari atxikitzen zaizkion langileak, eta, ondorioz, berehala egin beharko ditu gaixotasun, istripu, baimen, lizentzia eta

La empresa adjudicataria deberá mantener en todo momento el personal que se adscriba a la prestación del servicio con el calendario y horarios establecidos, y, en consecuencia, realizará de forma inmediata las sustituciones necesarias por razón de

antzeko beste arrazoiengatik egin beharreko ordezkapenak.

Ordezkapenak egiten direnean, enpresak abisua pasa beharko dio ahalik eta azkarren kontratuaren ardura daukan udal teknikariari.

Anoetako Udalak eskubidea izango du kontratuari esleitutako langileen aldaketa eskatzeko, ez baldin badira egokiak, kexak daudelako edo lanbide-profila desegokia delako.

Esleipendunak zerbitzua emango duen pertsonalaren zerrenda eta beren kontratuen kopiak aurkeztuko dizkio kontratuaren ardura daukan udal teknikariari.

Era berean, zerbitzua betetzerakoan alta, bajak edo ordezkapenak dauden aldiro, dokumentua eguneratuta berehala aurkeztuko du.

9. Lan guztiak gainbegiratu eta horien inguruko informazioa jasotzeko eskubidea gordetzen du Anoetako Udalak. Esleipendunak Udalarekin elkarlanean jardungo du, ikastaro eta tailerren zerbitzua behar bezala burutu dadin.

Horretarako, esleipendunak zerbitzuaren koordinatzaile arduradun bat izendatuko du, zerbitzuaren kudeaketa eta jarraipen lanak bere gain hartuko dituena.

Arduradun hau edozein unetan aurkitzeko moduan egongo da telefono mugikorraren bidez (esleipendunak emango dio bere langileari telefonoa), edozein egoera edo gorabehera konpontzeko.

Pertsona honen funtzioak hauek izango dira:

-Bilerak egitea kontratuaren ardura daukan udal teknikariarekin, zerbitzuaren martxa ona bermatzeko.

-Edozein intzidentziaren berri ematea kontratuaren ardura daukan udal teknikariari.

-Zerbitzua emango duten langileen asistentziak eta jarduera egokia kontrolatzea.

enfermedad, accidente, permisos, licencias u otras análogas, debiendo acreditar el cumplimiento de los requisitos de formación y euskera exigidos en el presente pliego.
En todo caso, la empresa adjudicataria avisará lo antes posible al personal técnico municipal encargado del contrato cuando haya alguna sustitución.

El Ayuntamiento de Anoeta se reserva el derecho a exigir la sustitución del personal asignado al contrato en caso de no idoneidad, por la existencia de quejas o inadecuación de su perfil profesional.

La adjudicataria presentará al personal técnico municipal encargado del contrato un listado nominal del personal que cubrirá el servicio, junto con la copia de los contratos del profesorado.

Asimismo, cada vez que se den modificaciones por altas, bajas o sustituciones durante la ejecución del servicio, presentará el documento actualizado de manera inmediata.

9. El Ayuntamiento de Anoeta se reserva el derecho de supervisión e información sobre todos los trabajos. La empresa adjudicataria colaborará con el Ayuntamiento para la correcta ejecución del servicio.

Para ello, la empresa adjudicataria designará una persona responsable para gestionar el seguimiento del servicio, que será la persona coordinadora.

Esta persona deberá estar localizable en cualquier momento mediante teléfono móvil para resolver cualquier situación o incidencia. La empresa adjudicataria será la encargada de proporcionar dicho teléfono móvil.

Las funciones de esta persona serán las siguientes:

-Realizar reuniones con el personal técnico municipal encargado del contrato para garantizar la correcta marcha del servicio.

-Dar cuenta de cualquier incidencia a dicho personal técnico municipal.

-Controlar la asistencia y buen hacer del profesorado que impartirá el servicio.

ANOETAKO UDALA

-Memoriak, txostenak eta proposamenak aurkeztea ikasturte amaieran.

-Erabiltzaileen kexak, erreklamazioak edota proposamenak jaso eta kudeatzea, erantzun egoki bat emateko, betiere kontratuaren ardura daukan udal teknikariarekin elkarlanean.

10. Jardueraren baitan ikasleek jasan lezaketen edozein motatako istripu edo gertakari kaltegarriei aurre egin ahal izateko, esleipendunak urtero, zerbitzua bere hedadura osoan estaliko duen asegurua izango du, Baldintza Administratiboetan ezarritakoari jarraiki. Polizaren kopia bat udaleko erregistro orokorrean aurkeztu beharko da jarduera hasi bezperarako.

Laneko istripuei, laneko segurtasun-neurriei eta Gizarte Segurantzari buruzko guztia esleipendunaren ardura izango da.

Ildo horretatik, esleipendunak beharrezko segurtasun neurri guztiak emango dizkie bere langileei, eta laneko segurtasunaren eta osasun arloan aplikatu beharreko xedapen guztiak beteko ditu.

Anoetako Udalak ez du inolako lan harremanik izango jardueretarako kontratatutako langileekin.

11. Adingabeentzat antolatzen diren ikastaroetako irakasleen kasuan, haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketari buruzko 2015eko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak ezarritakoa betez, delitugile sexualen Erregistro Nagusian sartu gabe daudela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute

12. Kontratu hau gauzatzean sortzen den dokumentazioa Anoetako Udalarena da. Zerbitzuaren garapenean erabilitako datuak, materialak etab. ezingo dira erabili udalaren baimenik gabe.

Esleipendunak zerbitzuaren inguruko edozein komunikabidean parte hartzeko, Anoetako Udalak baimena eman beharko du aurretik, eta edukiak adostu.

-Presentar memorias, informes y propuestas al finalizar el curso escolar.

-Gestionar las quejas, reclamaciones y/o propuestas de las personas usuarias, para darles una respuesta adecuada, siempre en coordinación con el personal técnico municipal encargado del proyecto.

10. Con el fin de hacer frente a cualquier tipo de accidente o suceso dañino que el alumnado pueda sufrir en el desarrollo de la actividad, la empresa adjudicataria dispondrá anualmente de un seguro que cubra, en toda su extensión, el servicio prestado, de acuerdo con lo establecido en las Condiciones Administrativas. Una copia de la póliza deberá presentarse en el registro general del ayuntamiento, como muy tarde la víspera del inicio de la actividad.

Todo lo relativo a accidentes de trabajo, medidas de seguridad laboral y seguridad social será responsabilidad de la empresa adjudicataria.

En este sentido, la empresa adjudicataria dotará a su personal de todas las medidas de seguridad necesarias, obligándose a cumplir cuantas disposiciones sean aplicables en materia de seguridad y salud en el trabajo.

El Ayuntamiento de Anoeta no tendrá relación laboral alguna con el personal contratado para el desarrollo de la actividad.

11. En el caso del profesorado de cursos para menores, en cumplimiento de lo establecido en la Ley 26/2015, de 28 de julio, de modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia, deberán presentar certificado acreditativo de no estar inscritos en el Registro Central de delincuentes sexuales.

12. La documentación que se genere durante la ejecución del presente contrato será propiedad del Ayuntamiento de Anoeta. Los datos, materiales, etc. Utilizados durante el desarrollo del servicio no podrán ser utilizados sin permiso del Ayuntamiento.

La participación de la empresa adjudicataria en cualquier medio de comunicación en relación con el servicio, deberá ser previamente autorizada por el Ayuntamiento de Anoeta, así como el contenido de la intervención.

ANOETAKO UDALA

5.- ANOETAKO UDALAREN BETEBEHARRAK

1. Anoetako Udala ikastaroen kuotak kobratzeaz arduratuko da.

2. Anoetako Udala ikastaroei buruzko kartelak egin eta zabaltzeaz arduratuko da.

3. Anoetako Udalak ikastaroetako ikasturteko egutegia zehaztuko du.

4. Anoetako Udalak ikastaroak eta tailerrak aurrera eramateko behar diren udal instalazioak esleipendunaren esku utziko ditu.

5. Anoetako Udalak enpresari ordainduko dio emandako zerbitzuengatik.

6. Anoetako Udalak, ahal duen heinean, esleipendunari lagunduko dio, zerbitzuaren martxa ona ziurtatzeko.

6.- KONTRATUA EZ BETETZEA

Kontratua behar bezala ez betetzat joko da honako baldintza hauek betetzen direnean:

- Aurreikusitako ikastaroak behar bezala gauzatu ez direnean.
- Saioak ezarritako baldintzetan eman ez direnean.
- Beharrezko dokumentazioa aurkeztu ez denean.
- Ebaluazioa eta amaierako memoria egin ez direnean.
- Kontratuaren gainerako baldintza teknikoak bete ez direnean.

5. OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO DE ANOETA

1. El Ayuntamiento de Anoeta se encargará del cobro de la cuota de los cursos.

2. El Ayuntamiento de Anoeta se encargará de hacer y difundir los carteles de los talleres.

3. El Ayuntamiento de Anoeta definirá el calendario de cursos para el curso académico.

4. El Ayuntamiento de Anoeta pondrá a disposición de la empresa adjudicataria las instalaciones municipales necesarias para el desarrollo de los cursos y talleres.

5. El Ayuntamiento de Anoeta pagará a la empresa por los servicios prestados.

6. El Ayuntamiento de Anoeta ayudará a la empresa adjudicataria, en la medida de lo posible, para garantizar un correcto funcionamiento del servicio.

6.- INCUMPLIMIENTO DEL CONTRATO

El contrato se considerará incumplido cuando se cumplan las siguientes condiciones:

- Cuando no se hayan realizado correctamente los cursos previstos.
- Cuando las sesiones no hayan sido impartidas en las condiciones establecidas
- Cuando no se haya presentado la documentación necesaria.
- Cuando no se ha realizado la evaluación ni la memoria final.
- Cuando no se hayan cumplido las demás condiciones técnicas del contrato.

Anoetan, sinaduraren datan,
KIROL TEKNIKARIA

ENARA EGIZABAL RIKONDO - 72839617C

Digitalki sinatuta norengandik: ENARA EGIZABAL RIKONDO - 72839617C
Data: 2026.08.31 15:00:11 +02'00'